

Logikoa denez, gure produktuak itsuentzat edo ikusmen-arazoak dituztenentzat diseinatuta daude. Askotan senideak edo bere inguruko jendea ere izaten dira erosten dutenak, horrela haiei laguntzen saiatzeko.

Orokorrean, gure bezeroak independentzia asko duten pertsonak dira, ikusi gabe mugitzeko gai direlako. Itsua zarenean edo zentzumen-mota bat galtzen duzunean beste batzuk gehiago garatzen dira; horregatik pentsatu dugu entzumen-aparatu batek bizitza asko erraztuko liekeela, helburu bera duen beste produkturen bat baino askoz erosoagoa delako.

Eskeintzen dugu produktu hau gure familia kide batek izandako istripu baten ondorioz garatutakoa da. Gure hurbileko kide honek istripuaren ondorioz ikusmena galdu zuen, eta makilek sortzen duten desorotasuna dela eta, produktu honen beharra zegoela ikusi genuen. Horrela ahalik eta bizitza normalena bizitzeko, independentzia gehiago izanez inoren baitan egon gabe.



Badakigu bezeroak orokorrean, oso pozik daudela gure produktuarekin, batez ere jaso izan dugun feedbackagatik, eta askotan lagundu dien edo normalean izaten zituzten arazoak izan dituen asmakizun handi bat izan dela diote. "Bizitza aldatu zait, paseo bat joatea bezain erraza den zerbait egin dezaket, inoren menpe egon gabe", esan zuen gure erabiltzaileetako batek.

Erabiliko dugun estrategia, marketing kontzentratua izango da, produktu edo zerbitzu partikular batekin, gure kasuan entzungailuekin, merkatuaren segmentu espezifiko batera zuzentzen den estrategia. Hau da, kontsumitzaile-talde mugatuago eta ondo definituago baten beharrak ulertu eta asetzean zentratzen gara. Xede-segmentuaren beharrak hobeto ulertzen, gure enpresak harreman estuagoak ezartzen dute bezeroekin, eta haien eskakizunetara hobeto egokitzen gara konponbideak eskaintzen.



erosi ahal izateko.

Gure produktua era guztietako bezeroentzat zuzenduta dago, baina egia da guztiek ezin dutela hasierako prezioa ordaindu, horregatik urtean zehar deskontuak egiten saiatzen gara produktu hau guztion eskura egon al izateko. Hala ere, uste dugu produktuaren prezioa bat datorrela eskaintzen dituen funtzioekin; Gainera, uste dugu aurreztea merezi duela

